



## AKTEA/05

**BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**  
**(2025-02-18)**

<b>Batzarraren izaera:</b>	Ohikoa
<b>Deialdia</b>	1. deialdia
<b>Data:</b>	2025-02-18 (Asteartea)
<b>Lekua:</b>	Udaletxe historikoko Osoko Bilkurako areto nagusia
<b>Hasiera-ordua:</b>	08:34
<b>Amaiera-ordua:</b>	08:43
<b>Alkate-Presidentea:</b>	NEMEH SHOMALY NADIA
<b>Batzordekideak:</b>	ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA URIARTE ANASAGASTI VICTOR ORTUZAR BUTRON XABIER GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE CARUEZO UGALDE MAITE
<b>Bertaratu ez direnak:</b>	
<b>Idazkaria:</b>	URIARTE LEJARRAGA JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E900122F4400G7A1A7I2S1O2

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA -  
20/02/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/02/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/02/2025  
09:03:25

DOCUMENTO: 20251191748

Data: 20/02/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

## Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2025-02-04 TGB (04)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Zornotza LHII ikastetxearekin hezkuntza lankidetzarako hitzarmena sinatzea onartzea.
- 4.- “Sancti Spiritus” egoitzan, mendekotasun egoeran dagozan pertsonen egoitza zerbitzu publikoa emoteko, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bermeoko Udalaren arteko 2025. urterako lankidetzara hitzarmena sinatzea onartzea.
- 5.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 6.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaien heldu diete. Eraitza honakoa izan da:

### 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2025-02-04 TGB (04)

Bertaratutako batzarkideek 2025eko otsailaren 4ko 04/2025 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

### 2.- BATZARKIDEEK GAI ZERREDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

### 3.- ZORNOTZA LHII IKASTETXEAREKIN HEZKUNTZA LANKIDETZARAKO

2



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E900122F4400G7A1A712S1O2

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/02/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/02/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/02/2025 09:03:25

DOCUMENTO: 20251191748  
Data: 20/02/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E900122F4400G7A1A712S1O2



**HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.****Xedea**

ZORNOTZA LHII ikastetxearen eta Bermeoko Udalaren arteko hezkuntza-lankidetzaren hitzarmenaren ondorioz, 79184066-B NAN zenbakidun ikaslearen praktikaldia onartzea.

**Aurrekariak**

Bakarra: 2024ko irailaren 5eko 2024-000005160 Alkatetza Dekretu bidez honako hau erabaki da:

“ ...

**BIGARRENA:** ZORNOTZA LHII ikastetxearen eta Bermeoko Udalaren arteko Hezkuntza-lankidetzaren hitzarmena sinatzea onartzea.

...”

**Argudioak**

Lehenengoa: 2024ko irailaren 5eko 2024-000005160 Alkatetza Dekretu bidez onartutako hitzarmenaren arabera:

*"7. - Honako hitzarmen hau 2024/2025 ikasturte osoan egongo da indarrean eta automatikoki luzatuko da, beti ere aldeetako batek kontrakoa adierazten ez badu. "*

Bigarrena: Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen duen 40/2015 Legearen hitzarmenei ezarritako baldintzak betetzen dira, baina ez da jasotzen hitzarmenean zehazten den jarduna udalaren zein ahalmenetan oinarritzen den, ez dira zehazten ez betetzearen ondorioak ezta hitzarmenaren jarraipena egiteko modua, 40/2015 Legearen 49. artikuluko b) e) eta f) atalek adierazi bezala.

Hirugarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.s) artikuluan jasotakoaren arabera, hitzarmena sinatzeko ahalmena alkateari dagokio, ez dagoelako beste organo bateri emanda, baina 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

**Sinadurea eta data**

Onarpen hau hitzarmena sinatu aurretik egin behar da.

### **Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: “Sistemas microinformáticos y redes” zikloko ikaslea den E.A.V., 79184066-B NAN zenbakidunaren, praktiketako eskaria onartzea:

- *Hasiera data: 2025eko otsailak 19*
- *Bukaera data: 2025eko maiatzak 30*
- *Praktikaldiko orduak guztira: 480 ordu*
- *Saila: Berrikuntza, Gobernu Irekia eta Herritarren Arreta Saila*

BIGARRENA: Berrikuntza, Gobernu Irekia eta Herritarren Arreta Sailari erabaki honen berri ematea.

HIRUGARRENA: Interesdunari erabakia jakinaraztea.

## **4.- “SANCTI SPIRITUS” EGOITZAN, MENDEKOTASUN EGOERAN DAGOZAN PERTSONEI EGOITZA ZERBITZU PUBLIKOA EMOTEKO, BIZKAIKO FORU ALDUNDIA ETA BERMEOKO UDALAREN ARTEKO 2025. URTERAKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.**

Idazkariak kontuhartzailearen eta Idazkaritza Saileko teknikariaren txostenen edukia laburtu du.

### **Xedea**

BFAgaz besteen laguntza behar duten adinekoei Zaharren Egoitzan zerbitzua emateko 2025 urterako lankidetz hitzarmena sinatzea onartzea.

### **Aurrekariak**

Lehenengoa: Bizkaiko Foru Aldunditik, besteren laguntza behar duten adinekoei egoitza zerbitzua emateko hitzarmena jaso da sinatzeko eta 52 plaza hitzartzea proposatzen dute.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E900122F4400G7A1A7I2S1O2

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/02/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/02/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/02/2025 09:03:25

DOCUMENTO: 20251191748  
Data: 20/02/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Nº PLAZAS	PERIODO	TIPO DE PLAZAS	PREZIOA PLAZA/EGUNEKO (BEZ GABE) PRECIO PLAZA/DÍA	EGUNAK DÍAS	OKUPAZIOA OCUPACIÓN	PREZIOA GUZTIRA (BEZ GABE) PRECIO TOTAL
52	01/01/2025- 31/12/2025	ORDINARIAS	114,60	365	100%	2.175.108,00 €.

**Bigarrena:** Gizarte Zerbitzuen mapak arautzen duenaren arabera, menpekotasun maila I-eko egoitza zerbitzuak udaletik eman behar dira, hau da; eguneko zentroa eta etxebizitza komunitarioa. Menpekotasun maila II eta III graduko bezeroen egoitza zentroak BFaren kompetentzia dira.

**Hirugarrena:** Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Saileko zuzendariak, hitzarmenaren Justifikatze Memoria igorri zuen 2025eko urtarrilaren 24an.

**Laugarrena:** Bermeoko Udaleko Idazkaritza Saileko AOTk txosten juridikoa eman zuen 2025eko urtarrilen 27an.

**Bosgarrena:** Bermeoko Udaleko kontuhartzaileak fiskalizazio txostena eman zuen 2025eko otsailaren 10ean.

### Argudioak

**Bakarra:** Menpekotasun maila II eta III graduko bezeroen egoitza zentroak BFaren kompetentzia dira, eta BFAk proposatutako hitzarmenak ez du estaltzen BFari dagokion kompetentzia. Baina zerbitzuak egoileen eskubide subjektiboak estaltzen dituen heinean, ezin da zerbitzua bertan behera itxi, egokia den eskumen eskualdaketa gauzatu arte.

### Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

**LEHENENGOA:** BFAgaz besteen laguntza behar duten adinekoei zaharren egoitzan zerbitzua emateko 2025. urterako lankidetza hitzarmena sinatzea onartzea.

**BIGARRENA:** Interesdunei erabaki hau jakinaraztea.



## 5.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

## 6.- ESKARI ETA ITAUNAK

Ez da egon eskari eta itaunik.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidaturakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Bermeoko Udalaren bilkura hau ikus-entzunezko euskarrian grabatu da "20250218\_TGB.mp4" izeneko dokumentu digitalean, "2025eko otsailaren 18ko Tokiko Gobernu Batzarra" aktari dagokionean. Akta hori udal-sistema informatikoan gordetzen da, eta haren osotasuna eta egiazkotasuna bermatuta geratzen dira bilkuraren administrazio-espeditente elektronikoiari erantsitako dokumentu elektronikoaren bidez, Eta ondorengo Osotasun Kodearekin (SHA-256):

**3c55027e151d8243bc191cc5cf598aa039d14f623adc64383b16ac11c5912c67**

Euskarri horretan jasota daude bilkuraren eguneroko eztabaidetan parte hartu duten zinegotzien eztabaidak eta bozketak. Akta hau eskuragarri egongo da hurrengo helbide honetako atari pribatuan:

<https://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/pribatua/>



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E900122F4400G7A1A7I2S1O2

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/02/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/02/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/02/2025 09:03:25

DOCUMENTO: 20251191748  
Data: 20/02/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unida: Erregistro nagusia



Orri oinean sinatzaileak eta datak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E900122F4400G7A1A712S1O2

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
20/02/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/02/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/02/2025  
09:03:25

DOCUMENTO: 20251191748

Fecha: 20/02/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

